

## 4.1. Gaiaren aurkezpena

### > Txano Gorritxo



#### - Bideoa

##### Helburuak

- Gaiari hasiera ematea.
- Umeei ipuin bat nolakoa den ikustea aurrerago eurek euren sortzeko.
- Joxerekin harremanetan egotea.

##### Prozedura

- Lehenik eta behin, Joxek zer bait bidali diela esan.
- Gai berri bat dela azaldu.
- Joxek bidalitako bideoa ikusi.
- Ulermena ziurtatzeko, galderak egin: Nor da hau?; Nola du izena?; Zer esan dio?; Zer egin behar du?; Nora joango da?; Zergaitik joan behar du basora?; Nor dago basoan?; ...
- Ipuina denon artean birkontatu.

##### Oharrak

- Nahikoa da bideoa behin ikustea.
- Umeei argi esan hori izango dela hurrengo lana: ipuin bat kontatzea.
- Ipuina paperezko euskarrian ere badago. Komeni da inprimatzea eta gelan txukun edukitzea umeei nahi dutenean irakurtzeko eta gaien zeharreko hainbat momentutan laguntza gisa erabiltzeko.